

Egunerokoaren bozgorailu

Lasarte-Oriaren berri eman du Txema Valles kazetariak ia 40 urtez; atseden hartzeko garaia heldu zaio orain / 7-9

TXINTXARRI

Kolore argi eta zapore onekoa

Datorren larunbatean, otsailaren 4an abiatuko dute aurtengo sagardo denboraldia Lasarte-Oriako Otegi sagadotegian / 6

Elkarrekin Lasarte-Oria
Podemos alderdiak
egoitza berriaren ateak
zabaldu dizkie
lasarteoriatarrei / 2

Juan Bereziartua
hil da: Landaberri
ikastolako txofer,
solaskide, eta Ttakun
KEko bazkide izan da / 3

Kirola eta ofizialtasuna
izan dituzte hizpide
Oriarte BHIko Euskara
Batzordeko kideek,
urtarrileko artikuluan / 4

Hiru zinema proiektzio
eta antzezlan baten
emanaldiak itxiko
dute urtarileko
kultur agenda / 5

Naroa Furundarena
herritarrak urrezko bi
domina irabazi ditu
Euskadiko Atletismo
Txapelketan / 11

Julian Iborra Ibañez
herritarrak 'Senderos y
rutas de Gipuzkoa' orria
sortu du: mendi irteerak
proposatzen ditu / 13

Meziane POZA
PRÁKTIKATU
mendian
solaskide

ZUREKIN
euskaraz
EGIN NAHI DUGU
Eman izena urtarriaren 30a baino lehen

Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48
695 78 53 89

Ttakun
kultura elkartea

euskaltzaleen
topagunea

LASARTE-ORIA
UDALA

munterri

UDAL
EUSKALTEGIAK

Bueltan Lira
AINHOA ETA MARIA

Betiko eskaintzekin:

- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Mota ezberdinetako depilazioak
 - Solariuma
 - Manikura eta pedikura
 - Makillajea
- Betileen tindatzea eta "lifting"-a
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Zerbitzu mistoak

Uistin kalea z/g · 943-37 08 45 LASARTE-ORIA

MAITE
ESTETIKA ARETOA

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



Miguel Angel Tolosa alkategaia, aurkezpen ekitaldian, Pilar Garrido eta Miren Echeveste alboan dituela. TXINTXARRI

ELOPek egoitza berriaren ateak zabaltu ditu

Zumaburu kaleko lokala elkargune dute Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos-eko militante eta kideek. Aurkezpen ekitaldian izan dira Miguel Angel Tolosa alkategaia, Gipuzkoako ahalungai nagusi Miren Echeveste eta Espainiako Kongresuko diputatu Pilar Garrido

Txintxarri

Miguel Angel Tolosa alkategaia alboan izan zituen Gipuzkoako ahalungai nagusi Miren Echeveste eta Espainiako Kongresuko diputatu Pilar Garrido, baita alderdiko zenbait militate eta beste udal ordezkari batzuk ere, hilaren 21eko aurkezpen ekitaldian. Zumaburu kaleko 5. zenbakiko egoitzaren ateak ireki zizkieten Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos (ELOP) alderdiko militante eta kideei. 11:00etan zuten hitzordua hura ezagutzeko, baina barrura sartu aurretik Garrido eta Echevestek kazetariei adierazpenak egin zizkieten. Maiatzeko hauteskudeei begira dituzten asmoak azaldu eta egungo egoera politikoaren gaineko irakurketa egin zuten. Jarraian, talde argazkia egin zuten Tolosarekin, Donostiako alkategai Victor Lasa eta Hernaniko Jaione

Ariztegi eta Lourdes Lopez zinegotziekin.

Barrura sartuta, adierazpen gehiago egin zituzten. ELOP Lasarte-Oriako alkategai Tolosak eskerrak eman zizkien bertaratu ziren beste alderdietako ordezkari. Ekitaldian Jon Antxordoki, Estitxu Garmendia, Sandra Barkaiztegi eta Pablo Barrio izan ziren. Zehaztu zuenez, azken zortzi urteetan udalak udaletxean utzitako leku batean lan egin dute eta lokala zabaltzeko xedea du bizilagunengandik gertuago egotea, "baina ez gure aldetik, beraientzat heltzea errazago izan dadin, baizik. Ikusten genuen beldurra edo kontua zutela udaletxera galdetzeraz joateko". Hortaz, gonbita egin zien ekarpenen bat egin nahi dutenei: "Ateak zabalik daude, zuen zain gaude".

Tolosaren aurretik, Garrido eta Echevestek ere hitz batzuk esan zituzten. Euskadiko Podemosek 9 urte bete zituen hilaren 21ean, eta denbora horretan egindako aldaketei begira jarri zen Irungo zinegotzi eta ahalungai. Moldaketa ugari izan badira ere, helburu berari eusten diotela berretsi zuen: "Eraldatzea eta erakundeak modu demokratiko eta gertuagokoan aritzea. Herriarren ahotsa entzun dadila klientelismoa eta espekulazioaren gainetik".

Garridok, berriz, Espainiako Gobernuaren daramatzaten hiru urteak ere ospatzeko arrazoia badietara nabarmendu zuen, "herriarren eta gehiengo sozialen interesak erdigunean jarrita" erabakiak hartu baitituzte. Adierazpenak bukatuta, mokadutxoak egin zuten bertaratuak.



Udal ordezkariak Martxoaren 8ko kartel lehiaketa iragartzeko agerraldian. TXINTXARRI

2024ko Martxoaren 8a iragarriko duen kartel lehiaketa

Hiru afixa sarituko dituzte. Ordainsari ekonomikoa jasoko dute, eta irabazleak 2024ko egun seinalatua iragarriko du

Txintxarri

Datorren urteko Emakumearen Nazioarteko Eguna iragartzeko kartela sortzen has daitezke Lasarte-Oriako gazteak. Udalak iragarri du sorkuntza lan horiek otsailaren 1etik aurrera entregatu ahaliko dituztela parte hartzaileek, eta horretarako azken eguna 28a izango dela.

12 eta 17 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute, eta pertsona bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ditzake. Sortzaile bakoitzak gainera, libreki erabaki dezake zein teknika erabili afixa sortzeko, baina derrigortasun bat ere hartu beharko du: goiburua. Udalak jakinarazi du honako izenburu hau eraman beharko duela: *Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres*. Formatu digitalean zein fisikoan aurkeztu ahal izango dituzte

parte hartzaileek, izenburu batekin identifikatuta.

Bozketa, martxoaren 1etik 8ra

Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Emakumeen Zentroan erakutsiko dituzte martxoaren lehen aste eta erdian (1etik 8ra), eta bertara joan ahal izango dute herritarrek euren bozkak ematera, epe horretan. Herriarren iritziak aintzat hartuko dituzte bigarren eta hirugarren sarituak hautatzeko, eta garailea epaimahai batek erabakiko du. Azken hori Lasarte-Oriako Udaleko Berdintasun teknikariak, Gizarte Zerbitzu eta zuzendariak eta gaian adituak diren pertsonek osatuko dute. Horien iritzia apelaezina izango dela ohartarazi du udalak. Hiru sari banatuko dituzte hortaz; 120 euro irabazleari, 90 euro bigarrenari, eta 60 euro hirugarrenari.

Bilera informatiboak eta ate irekiak egingo dituzte ikastetxeek

Otsail erdialdean irekiko dute datorren ikasturterako matrikulazio epea herriko ikastetxeetako bik, Sasoeta-Zumaburuk eta Garaikoetxea Landaberrik. Herriarrek hilabete horretako 13tik 24ra izango dute inskribatzeko, bi egunak barne.

Garaikoetxea Landaberrik bilera informatibo bat aurrera eramango du gaur, hilak 27, 17:30ean.

Jakinarazi du interesa dutenek izena eman behar dutela www.landaberri.eus webgunean. Horrez gain, 943-37 06 62 telefono zenbakira hots egin dezakete.

Sasoeta-Zumaburuk, berriz, ate irekien saio bat egingo du otsailaren 11n, larunbatekin, 11:00etatik 13:00etara. Lau egun geroago, bilera informatibo bat aurrera eramango du, 17:00etan. 943-36 12 26 telefono zenbakia eta sasoeta-zumaburu.eus atari digitala jarri ditu lasarteoriatarren eskura.

ESKUTITZA

IÑAKI ARRUTI LANDA

Aio Juan!

Zarata handirik atera gabe joan zara, Juan. Halaxe ibili ohi zinen gure artean zeundenean ere, isil antza, soinu gutxi, baina nora joan jakinda eta joan behar zela uste zenuen tokira joanda, arin joan ere. Ez dakit joateko nagiak, alferrak edo galbanak jota joan gabe geratu zaren tokirik izango ote den.

Errezil, nekez jaio eta errez hil. Joan den mendean, Gerra Zibilek harantzago joanda, 1934an, jaio zinen, Juan, Buztinzuri baserrian, Errezilen. Lehendabiziko abizena Bereziartua zenuen, baina gure arteko gehienontzat ez zara Juan Bereziartua izan, *Juan txoferra* baizik. Kamioiekin hasi zinen txofertzan, Aginagako Errastitarrekin, eta autobusarekin jarraitu, joan-etorrian. Landaberri ikastolako txoferra, singularrean, Juan.

Txoritxo batek esan dit zeuk eskaini zenuela zeure burua autobusa gidatzeko, boluntario! Sinestea ere kosta egiten da gaur egun nolatan eskaini daitekeen norberaren eskulana musu-truk. Norbaitek ideia ona izan zuen zu kontratatzearekin. Fitxaketa hoberik? Zenbat joan-etorri egin zenituen Garaiarri erositako lineako autobus zahar harekin? Zenbat haur joan ginen zurekin autobus hartan ikastola Kalexarren ezagutu genuenetik hasi eta autobus "berriarekin" jubilatuta zinen bitartean?

Zenbat? Askok. Eta nolakoak, atzera-aurrera haiek? Ez dut ezagutzen ikastolako autobuseko joan-etorrien gainean zer kontatua ez duen ikasle ohirik. Izan autobusera sartzerakoan egiten zenigun harrera, izan atzeko partean zegoen banku jarraitu hura, izan haren erdian zegoen ordeko gupil hura, izan haurrak builaka ginenean motor gainean zenuen mahaitxo harekin (txartelen salerosketako txanponak gordetzeko zen harekin!) ematen zenuen kolpe lehor hura: ixo!

Autobusaren joan-etorriak bakarrik izan balira, tira. Zenbat ordu sartu zenituen ikastolan, astegun eta asteburu, bertara joan eta egin behar zena egitera? Izan eraikina bera jasotzera, izan inguruko sasiak garbitzera, izan Imanoli esku bat botatzera, izan gaztainak erretzera, izan..., izan, gu denontzat hezitzaile bat izan zara, Juan.

Jubilatu bai, baina erretiratu ez. Landaberriz gain, Ttakunen zenbat ordu? San Tomaseko gaztainak, Euskararen Maratoietan beti esku bat botatzeko prest... Eta solaskide? Horixe hitz aproposa izan zarena deskribatzeko, hitz egiteko kide. Juan eta Joan. Zenbat urte joan dira, astero, euskaldun batek, osatzeko bidea egiten ari den beste bati, eman diezaiokeen onena ematen? Ahobizi, belarriprest eta betiprest.

Eta bertso-eskolan ere bai, tartean. Bertsotako kideek laster osatuko lukete zuretzat zortziko txikia oin hauek emanda: argala, kabala, apala eta zerbitzala.

Gerra eta diktadura-aldi latz batean nekez jaio eta bizitua. Soziolinguistikako eta ekintza komunitarioaren inguruko teoriarik ezagutu gabea, baina, ibilian-ibilian, bide-erakusle oso praktikoa izan zara Juan. Joan-joan, joan zara, Juan, baina gurekin joango zara gero ere. Mila esker oihu isil bat.



Ezkerrean, Juan, Landaberriko txoferra zenean. Eskuinean, goian, San Tomas azoka batean, gaztainak erretzen, eta azpian, TXINTXARRI-k egindako kale inkesta bati erantzuten. LANDABERRI IKASTOLA/TXINTXARRI

Juan Bereziartua hil da

Notizia triste bat jaso dugu berriki: Juan Bereziartua hil da, 88 urte zituela. Urte luzez makina bat ikasle etxetik Landaberrira eta ikastetxetik etxera bueltan eraman zituen, bera izan baitzen txoferra. Ikasleek *Juan txoferra* ezizenez ezagutzen zuten. Lasarte-Oriako euskalgintzan ere gogotik aritu zen, Solaskide programan eta Ttakun Kultur Elkartek antolatutako hainbat jardueratan, besteak beste, San Tomas azokako gaztainak prestatzen. Euskara elkarte zuzendaritzako kideek eta langileek doluminak adierazi dizkiote familiari.

Solaskide egitasmoan taldekide izan dituen herritarrek testutxo bat idatzi dute, azken agurra emateko:

**Zure euskara gure ahoan,
zure irria gure memorian,
zure izaera gure bihotzean.
Goian bego gure solaskide maitea.**

EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK, urtarrilaren 26tik otsailaren 3ra

- **Lehen Hezkuntza** (Kultura orokorra. Ingelera, Gaztelania, Idazmena eta Irakurmena. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...).
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko titulua lortzeko moduluak).**
- **Gaztelania atzeritarrentzat.**
- **EUSKARA (1-2 mailak).**



Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!

Tel. 943-37 64 43 / 943-36 66 08 • Beko kalea bidea, 1º 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarte.eus

Zaila bada, ez da ezinezkoa



Urte berria iritsi da eta, indarberrituta, Oriarte BHIko Euskara Batzordeko kideak ilusioz beteta gatozkizue. Asmo berri horien artean daude Euskal Selektzioa ofizialki onartzea eta gure aberriaren ordezkariak mundu mailako lehiaketetan parte hartu ahal izatea

Libe Elvira Arizeta, Araitx Ramos Irazusta, Urko Ormazabal Zugarramurgi, Oier Bergara Amantegi, Julien Gonzalez Toquero eta Maddi Lasa Ormazabal

Imajina ezazue, une txiki batez, orain dela gutxi jokatu berri den munduko futbol txapelketan gure selektzioa animatzeko aukera izatea edo saskibaloitxapelketan Euskal Herriko ikurriña astintzeko ohorea izatea.

Antzinatik, hainbat kirol daude Euskal Herrian bereziki sortu, garatu zein jardun izan direnak, adibidez, pilota, toka, arrauna, pala, aizkora zein beste hainbat herri kirol... Hauek guztiak mundu mailan Espainiaren izenaren azpian ezkutatuta ordezkatu behar izateak min handia eragin du zale askoren artean. Horrez gain, askoren iritziz, estatu propiorik ez dugun

bitartean, ezingo dugu selektzio propiorik eduki; beste batzuen ustez, aldiz, ez du zertan horrela izan. Nahiz eta iritziak askotan kontraesankorrak izan, gai izan gara denon artean batu eta talde bezala borrokan aritzeko. Horren adibide, azken urteotan lanean jardun duen Euskal Selektzioarten Aldeko Iritzi Taldea (ESAIT) dugu.

ESAIT, Euskal Herriko selektzioaren ofizialtasuna lortzea helburu duen taldea da, 1995eko udazkenean sortua. Nahiz eta 2015ean bere bidea amaitutzat eman, aurrerapauso nabarmenak ekarri ditu. Adibidez, pilota eta surfaren euskal selektzioei ofizialki lehiatzeko bidea zabaldu zaie, Madrilgo Kongresuak onartu duen lege berriaren arabera. Horren harira, ekainaren 26an, Euskal selektzioen ofizialtasuna

aldarrikatzeko egun ofizialean, urtero-urtero Bilbon zazpi ekitaldi nagusi antolatzen dira *Euskal Herritik mundura!* lelopean.

Ekitaldi horiek, Gu ere bai! taldearen eskutik antolatzen dira orain, ESAIT ordezkatzeko duen eragile aktibista baita, 2020ko martxoan sortua. Bestalde, Euskal Selektzioak, tradizio eta ohitura handiz, urtero-urtero Gabonetan partida bat jokatu eta ospatzen du ofizialtasuna eskatzeko eta aldarrikatzeko.

Borroka horiek guztiak medio, badaude ofizialtasuna lortu duten hainbat kirol. Horieta batzuk dira hauek: sokatira, mendi martxak... Horiek dira Euskal Herriaren izenean lehiatzea lortu duten diziplina ofizialak. Hala ere, ofizialtasuna lortzea ez da hain gauza erraza, izan ere, horretarako, Euskal Federazioa

Espainiako Federazioa baino lehenago sortua izan behar du. Hori ez da askotan gertatzen, eta horregatik, lehia gogorra bihurtu da hau.

Badaude hainbat kirol Euskal Herrian bertan sortu edo gehienbat hemen praktikatzeko direnak, adibidez: euskal dantza, toka, erremontea, aizkora, sega, arrauna, pala... Baina badaude beste hainbat eta hainbat kirol, nahiz eta Euskal Herrian sortuak ez izan, gehienbat Euskal Herriarekin lotzen direnak, esate baterako, txirrindularitza.

Txirrindularitza hitza entzunda, askori Frantziako Tourra edo Italiako Giroa etorriko zaie burura, baina bigarren maila batean, Euskal Herriko Itzulia lehenengo postuetan kokatzen da. Kontuan izanda Euskal Herriak ez duela aurreko beste bi herrialde horien adinako garrantzirik mundu mailan, aurrerapauso handia eta harro egoteko modukoa iruditzen zaigu. Alderantziz ere gertatzen da, adibidez, zesta puntarekin: Euskal Herrian sortutako kirola da, bertakoa, eta dagoeneko mundu osora hedatu da. Modalitate hori Ameriketako Estatu Batuetan, Frantzia, Mexikon, Filipinetan, Espainian... jokatzen da gaur egun, Jai Alai izenez ezaguna.

Euskal dantza

Bestalde, Euskal Herriko beste kirol garrantzitsu eta ederrenetariko bat euskal dantza da. Bertan, erritmoa, indarra, erresistentzia, mugimendua eta gorputzaren kontrola lantzen dituzte, eta hori guztia nahasten denean, koreografia eder zein liruragarriak sortzen dituzte. Gure herrian hain garrantzitsua den dantza mota hori mundura zabaltzea nahiko genuke, eta nazioarteko modalitateen artean parte hartzen duen euskal dantza selektzio bat osatzea. Izan ere, gaur egun, lehiaketak Euskadi mailan bakarrik egiten dira. Halaber, hau ez da dantzarekin bakarrik gertatzen, kirol asko baitaude horren antzeko nahiekin

IKASLEAK, KAZETARI

Oriarte institutuak eta TXINTXARRI aldizkaria elkarlanean jarduten ari dira 2022-2023 ikasturtean. Hilean behin, Euskara Batzordea osatzen duten ikasleek artikulu bat prestatuko dute, ekainera arte. Hilabete honetan Euskal Herriko kirol mota ugariaren eta haien ofizialtasunaren gainean hausnartu dute. Urte berria "ilusioz beteta" hasi dutela azpimarratu dute.



bat datozenak, talde aktibisten helburu handien barnean sartzen direnak.

Ondo adierazi dugun bezala, gure ustez ofizialtasuna merezi duten hainbat kirol daude Euskal Herrian, oihartzun askorik ez dutenak, eta merezi dutenak. Jakina, hori guztia, gizonezkoen zein emakumeen artean aplikatu nahiko genuke, eta bide zaila izan daitekeela dakigun arren, batez ere emakumezkoentzat, lor daiteke eta horren alde borrokatzea merezi duela uste dugu.



Oriarte BHIko ikasle talde bat, halterofilia nola egin ikasten. TXINTXARRI



Esgima saio bat. TXINTXARRI

Hiru film eta antzerki bat, hilabetea ixteko

Okendo Zinema Taldeak 'La maternal' filma proiektatuko du gaur, hilak 27, 22:00etan; bihar, 'Hondamendia' antzezlanak ekarriko dute Axut! eta Artedrama konpainiek; eta etzi, 'Kung food' eta 'El peor vecino del mundo' pelikulak emango dituzte. Hori guztia, kultur etxean

Txintxarri

Zinema eta antzerki emanaldiek biribilduko dute Lasarte-Oriako Udalak urtarrierako prestatutako kultur agenda. Okendo Zinema Taldeak irekiko du astebururako programa gaur bertan, hilak 27: *La maternal* filma proiektatuko du, 22:00etatik aurrera, kultur etxeko auditorioan. Sarrerek 6 euro balio dute eta areto horretako leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete herritarrek. Pilar Palomerok zuzendutako pelikulak Carla gaztearen istorioa kontatzen du: 14 urteko nerabe hori haurdun geratuko da eta *La maternal* izeneko zentro batera eramango dute. Bertan, adin txikiko beste ama batzuekin biziko da.

Bihar iluntzerako plana *Hondamendia* izango da. Axut! eta Artedrama konpainiek antzezlan horren emanaldia aurrera eramango dute kultur etxean, 20:00etan. Ikuskizun horretarako txartelak ere 6 eurotan eskura ditzakete ikus-entzuleek. Nagusiki, bi gai jorratzen ditu Ximon Fuchs-ek zuzendutako obrak: Zaldibarko zabortegean 2020ko otsailean gertatu zen erauntsia –bi langile hil ziren horren ondorioz, Joaquín Beltrán eta Alberto Solórzua– eta hilabete geroago lehertu zen pandemia.



Tomaxen abenturak taldearen 'Bi ipuin' antzezlanaz gozatu zuten herritarrek. TXINTXARRI

Hilaren 20ko aldizkarirako Harkaitz Cano idazle herritarra elkarrizketatu genuen, hark idatzi duelako testua. Besteak beste, aurreratu zigun kontakizuna "itogarria" dela batzuetan, sortzaileek hala bilatuta, baina "pronostiko guztien aurka, argi zirrikitu dezente eta umore arrastoak" dituela.

Azkenik, beste bi film emango dituzte igandean, haurrentzat nahiz helduentzat bana. *Kung food* izango da lehenengoa, 17:00etan, eta *El peor vecino del mundo* bigarrena, 19:30ean.

Sarrerek 4 eta 6 euro balio dute, hurrenez hurren.

Familiak, liburutegira

Tomaxen abenturak taldeak Bi ipuin antzezlanaren emanaldia egin zuen hilaren 21ean, kultur etxean. Auditorioa utzi gabe, Muxi eta Tomaxekin batera liburutegira joan ziren eta bi pertsonaiek *Ahatetxo itsusia* eta *Txanogorritxo* ipuinak aukeratu zituzten, euren erara antzezteko. Ohi bezala, umorez eta dantzaz betetako saioa izan zen, eta gogotsu parte hartu zuten ikusleek haiek eskatutakoan.



TXINTXARRI

Dantza, hotzari aurre egiteko

Takun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, 2023ko lehen saioa egin zuten hilaren 22an Okendo plazan. Goiz hotza izan bazen ere, eguzkiaren beropon gorputzari eragina berotu ziren. 30 bat lagun batu ziren plazan oinak mugitu eta dibertitzeko, banaka, binaka edo taldean. Entseguak asteartero egiten dituzte, Sasoeta LHko gimnasioan, 20:00etan. Parte hartu nahi dutenek 695 78 53 89 telefonora deitu behar dute.



MIKEL LEGARISTI

Soldadu paperean aritu dira

'Bretxa 1813, Donostiako sutea' ikuskizunak hartu du berriki Donostiako Victoria Eugenia Antzokia eta bertan parte hartu dute LOZET Lasarte-Oriako Zezensuzko eta Erraldoi Taldeko hainbat kidek. Antzeztu dute 1813. urtean Donostia suntsitu zuten soldaduen istorioa, eta emanaldiak "arrakasta handia" izan duela azpimarratu dute parte hartzaileek.

Miss Grand Euskadi lehiaketan parte hartuko du Aroa Sancho Palomaresek

Bilbon ospatuko da txapelketa gaur, hilak 27, eta bertan arituko da lasarteoriatarra. Esperientzia bizitzeko "urduri, baina ilusioz" dago

Txintxarri

Lasarte-Oriak ordezkaritza izango du ostiral honetan Bilbon ospatuko den Miss Grand Euskadi edertasun lehiaketan. Aroa Sancho Palomares herritar gazteak parte hartuko du bertan, eta gisa horretako txapelketa batean arituko den lehen aldia izanagatik, "urduri, baina ilusioz"

dago. Azken prestaketa lanetan murgilduta dabilela kontatu dio TXINTXARRI-ri. Behin hitzordu garrantzitsua igarota izango dugu berarekin hitz egiteko aukera; orduan kontatuko digu zer-nolako esperientzia izan den.



Aroa Sancho Palomares herritarra izango da lehiakideetako bat. AROA SANCHO PALOMARES



Lasarte-Oriako hilerria bidean dago Otegi sagardotegia. Otsailaren 4an abiatuko dute bertan aurtengo denboraldia. TXINTXARRI

"Kolore argi eta zapore onekoa da aurtengoa"

OTEGI MERCADER FAMILIA OTEGI SAGARDOTEGIA

Otsailaren 4an irekiko ditu ateak Lasarte-Oriako Otegi sagardotegiak. Hemengo sagarrak ez, eta Frantziatik ekarritakoarekin egin dute aurtengo sagardoa; aurreikusitakoa baino hobe lortu dutela nabarmendu dute. Betiko bezeroekin elkartzeko zain agertu dira, "gogotsu"

Txintxarri

Abiatzear dute aurtengo sagardo denboraldia Lasarte-Oriako Otegi sagardotegian, eta telefonoa gainean dutela dabilta egunero erreserbak hartu eta hartu. Lan handia egin beharko dutela jakin badakiten arren, "gogotsu" agertu dira, datorrenari hasiera emateko. Txuleta eder baten aurretik bakailaoa tortillan zein frijituta jatera joango dira bezero asko, baina barazkijaleentzat eskaintza ere izango dutela iragarri dute bertakoek. Martxan jartzear

duten denboraldiz hitz egin dute TXINTXARRI-rekin.

Otsailaren 4an emango diozue hasiera aurtengo sagardo denboraldiari Otegin.

Hala da, bai. Horrela egiten dugu, otsaileko lehen asteburuan hasi ohi dugu urtero gure sagardo denboraldia. Nahiago izaten dugu data horretan abiatu, behin sagardo denboraldia ireki eta hasierako lehen olatua igaro denean martxan jartzea.

Nolako sagardoa da aurtengoa?

Egia esan, edaria egiten hasi ginenean aurreikusten genuen emaitza gairatu duela esan

dezakegu. Bertako sagarrak apenas izan da aurtengoa, eta kanpotik ekarri behar izan dugu. Itxura txarra hartu genion hasieran frutari, zikin-zikina iritsi baitzen, baina lortu dugu kalitatezko produktua egitea. **Uzta kaskarra izan da aurtengoa hemen orduan.**

Bai, oso urria. Normandiatik (Frantzia) ekarri dugu aurtengo sagardoa egiteko sagarra, eta esan bezala, itxura kaskarrekoa zirudien, zikina. Dirudienez makinekin biltzen dute Frantzian, eta horrek zikindu

egiten du fruta. Eskerrak presio handiko garbiketa tresneria eraginkorra daukagun, horren bitartez garbitu dugu sagarra. Azkeneko emaitza ona lortu dugu; ez genuen hala izango zenik espero.

Hasierako sagarraren pinta ikusita, animoa gainbehera etorri al zitzaizuen?

Noski, erabat desanimatu ginen, baina orain pozik gaude emaitzarekin.

Sagar uzta urtetik urtera aldakorra izan ohi da?

Bai, hala izaten da sagarrarena. Normalean, hiru urtean behin eman ohi du uzta ona. Hala tokatu da aurtengoa, eskasa. **Orotara zenbat sagardo izango duzue denboraldi honetan?**

Gutxi gorabehera 26.000 litro izango dira aurtengoak eta horri gehitu behar zaio iaiztik genuena. Litro asko bildu genituen orduan, eta berria egiteaz gain, hori mantentzen ere aritu gara. **Eta zapore zein kolore aldetik, nolako edaria dastatu ahal izango dute bezeroek?**

Kolore aldetik polita, oso argia izango da, eta, zaporez, berriz, ona. Etxekook gustura gaude lortutako emaitzarekin, gairatu dugu hasierako aurreikuspena. Ikusi beharko da sagardotegira etorriko diren zein iritzi duten. **Denboraldi berri honen hasierarekin batera asko hitz egin da sagardotegien etorkizuna zailtzen jar dezakeen arazoaz: belaunaldi aldaketa falta. Nola bizi duzue zuenean hori?**

Guk, zorionez, momentuz ez dugu arazo hori. Semeak eusten dio guk hasitako ibilbideari, bera da negozioaren arduraduna. Sagardotegitik kanpo ere ari da lanean. Zaila da bi lanak uztartzea, baina ezinezkoa sagardogintzatik soilik bizitzea. **Asteburuetan izango da Otegiara joateko aukera.**

Bai, ostiraletik igandera egingo dugu lan. Halere, astean zehar ere izango da hona etortzeko aukeraren bat edo beste, betiere etorriko dena talde handi bat bada.

Otegi sagardotegia

- **Irekiera:** Otsailaren 4an, ostirala.
- **Eskaintza:** Menu tradizionala eta barazkijaleentzako aukera.
- **Helbidea:** Illarraltzueta Bidea, Larrekoetxe Bidea, 2, 20160, Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Astebete baino ez zaizue geratzen aurtengoari hasiera emateko. Gogotsu al zaudete?

Bai, badugu gogo. Ukaezina da lan asko egin behar dela, baina oso gustuko dugu sagardotegi giroa, eta zain gaude ohiko bezeroekin elkartzeko. Hori ere oso polita da guretzat, betikoak urte urte gure etxean izatea.

Dagoeneko erreserbarik hitzartu duzue? Nolako denboraldia izango dela aurreikusten duzue?

Bai, dagoeneko telefonoa lepotik zintzilik hartuta dugu gabiltza. Espero dezagun orain artekoak bezain ona izatea.

Eta menuari dagokionean, tradizionalari eusten diozue? Bestelako aukerarik eskaintzen al duzue?

Bai, noski, tradizionalaz gain, bestelako aukerak ere badaude gurean. Garaia aldatu dira, eta horiekin batera jan ohiturak eta guk, guztiei egin nahi diegu tokia gurean. Barazkijaleak direnentzako ere izango da proposamenik.

Zenbat lagun har ditzake zuen sagardotegiak?

120 eta 150 pertsona artean bil daitezke Otegin.

Nolako bezeroak topatu dituzue orain arte zuen etxean?

Oso jatorrak beti. Izan da noski behar baino gehiago edan eta desatsegin jokatu duenik ere, baina kasu bakanak izan dira. Aurtengoa ere betiko giroa izatea espero dugu.

KOMERTZIO TXIKI
HERRI HANDI
LASARTE-ORIA

ELECTRICIDAD
ARREGUI
Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna
elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak
Kale Nagusia, 39
Tel. 943-36 10 80 - 600 85 75 86

MAITE
ESTETIKA ARETOA
• Tratamenduak • Depilazioak • Solariuma
• Manikura eta pedikura • Makillajea
• Betileen tindatzea eta "lifting"-a
Ustina Kalea z/g Tel. 943-37 08 45

txintxarri
PUBLIZITATEA JARRI NAHI DUZU?
GUK ZU ETA ZUK GU
LAGUNTZEKO!

TXINTXARRI
Geltoki kalea 4
LASARTE-ORIA
646 82 44 66
publizitatea@takun.eus

Iñigo Gonzalez Sarobe

Txema Vallesen (Lasarte-Oria, 1958) lankide izan garenoi arraro egiten zaigu prentsurreko, ekitaldi, ospakizun eta gure herrian gertatzen den beste edozertara berarekin ez joatea. Antolatzaileak ere, apurka-apurka, ohitzen ari dira argazkietarako jarri eta bere aginduak ez jarraitzea. Ez da harritzekoa, azken ia lau hamarkadetan Lasarte-Oriaren eguneroko jardunaren lekuko eta idazle izan baita, *El Diario Vasco* egunkarian, herriz herriko sailean. 39 urte eta erdiren ostean, atsedean hartzeko unea heldu zaio: iragan urteko abenduaren 30a izan zen bere azken laneguna.

Elkarrizketatzaile izatetik elkarrizketatua izatera igaro da Txema, eta ederki moldatu da. Bukatzean, animoak eman dizkio kazetariari: "Kontatzen zidatena transkribatzea izan da beti lanbide honetako zeregin nekagarrienetako bat".

Ia hilabete igaro da zure azkeneko lanegunetik. Ohitu zara bizimodu berrira?

Lasarte-Oriako kronista ez naiz honezkero, baina kotizatzen jarraitzen dut oraindik. Akordio adiskidetsu batera iritsi nintzen *El Diario Vasco*-rekin baina lan harremana ez dugu eten oraindik. Bilerak bat izango dut laster Gizarte Segurantzakoekin, erretiroa hartu ala langabeziara joan naizen ikusteko, haiek esango didate. Aukera bat edo bestea, nire egoera ez da ia aldatuko, ekonomikoki pixka bat agian, baina gainerako guztian, ez.

Gure herriaren berri emateaz gain publizitate agentzia bat ere izan dut, eta iragarleekin zenbait kontratu ditut oraindik, zerbitzua ematen segitzen dut. Horrez gain, denboraldi hasieran konpromiso bat hartu nuen Gipuzkoako zenbait areto futbol taldeekin, kontratu moral moduko bat, eta udarara arte haien partiden berri ematen jarraituko dut, informazio hori *El Diario Vasco*-ren Kirolak sailari bidaltzen.

Ia 40 urtez gure herriaren berri ematen... Artxibo ederra izango duzu, ezta? Zer egingo duzu horrekin?

Bizirik mantendu nahi dut artxibo historikoa, elikatzen jarraitu. Oso gustura egingo dudana lan bat da, nire benetako pasioa hori baita. Jakin behar dut zehazki zer daukadan gordeta, eta aztertu nola jar dezakedan herritarren eskura: Lasarte-Oriako Udalarekin

"Dedikazio handiko lana izan da nirea"

TXEMA VALLES BERRIEMAILEA

Kronikak idazteari utzi badio ere, Txema Vallesi ez zaio lanik falta: bere bulegoko beheko pisuan gordetzen duen artxibo historikoa lasarteoriatarren esku nola utzi pentsatzen ari da



Elkarrizketatuei banku honetan atera izan dizkie argazkiak Txema Vallesek. Oraingoan, bera jarri da argazkilariaren aurrean. TXINTXARRI

elkarlanean zerbait antolatu, liburu bat edo batzuk idatzi, argazki erakusketak prestatu... Ikusiko dugu. Pausoz pauso joango naiz, pixkanaka.

Bilduma historiko hori elikatzen segi nahi duzula esan duzu. Ekitaldietara joaten jarraituko duzu, beraz?

Guztietara ez, nire eguneroko jarduna bukatu da, kitto. Hori bai, ekitaldi garrantzitsu batzuk apuntatuta ditut: San Pedro Jaiak, Santa Ana, Inauteriak, Nazioarteko Krosa, Hipodromoko zaldi lasterketak... Joango naiz, baina beste ikuspuntu batetik egingo ditut argazkiak, edo hori uste dut. Orri bat ordu jakin baterako prestatu beharraren presiorik gabe. Erlaxatuago egongo naiz. Neurrian, baina iruditzen zait ona dela martxa mantentzea, den-dena egiteari utzi beharrean. Niretzat ona da noski, eta kasu honetan, gure herriaren historiarentzat ere bai, artxiboa osatzen jarraituko dudalako.

Azken lau hamarkadetan aurrera eramanez izan duzun jardunetik, zer botatzen duzu faltan?

Herritarrekin izan dudana harremana, esango nuke. Egia da kexatu izan naizela batzuetan, bulegora etorri direlako eta lan martxa moztu didatelako, baina oso gustura aritu naiz guztiekin, jende asko ezagutu eta lagun pila egin ditut.

Horrelako gauzengatik pena ematen dit bukatu izanak, baina argi utzi nahi dut poza ere sentitzen dudala, nekatuta nagoelako. Urte asko izan dira, egunero lanean, hara eta hona, geratu gabe. Argi nuen geratu egin behar nuela, denbora libre gehiago izan, familia, kirola egin... Gorputzak eskatu egiten zidan hori guztia.

Lanbide honen erruz, zer galdu duzu?

Gauza eta momentu asko. Familia dut nik, emaztea eta bi alaba; oso denbora gutxi igaro dut haiekin, etxean gutxitan ikusi naute. Anekdotak bat kontatuko dizut. Alaba zaharrena, Joana, jaiota zegoen ordurako. Ostirala zen, eta Oñatira joan behar nuen, 22:00etan, areto futbol partida bateko argazkiak ateratzera, *DV Kirolak* gehigarriak. Bi ordu lehenago iritsi nintzen etxera eta alaba nire zapatetako sokak askatzen hasi zen: behin, bitan, hirutan. Emazteak esan zidan, 'Ikusten? Ez du zu lanera joatea nahi'. Hala ere, joan egin behar... A zer nolako lanak egiten genituen! Merezki izan ote du horrek guztiak? Ez dakit... Horrelakoa naiz ni,

beti saiatu naiz ahalik eta profesionalena izaten. Egunez egun aurrera, bizimodua atera eta familia mantentzeko. Dedikazio handiko lana izan da nirea.

Eta zer irabazi duzu?

Beste gauza asko, noski, alor askotan. Bizipenak, oroitzapenak... Eskertuta nago, joan naizen toki guztietan ireki didate atea, eta denek agurtzen naute kaletik. Ereiten baduzu, beti jasoko duzu fruitua, euri gehiago edo gutxiago egin. Ahalik eta gehienei ahotsa ematen saiatu naiz, haien bozgorailu izaten, harrotasunik gabe, pertsona normala izaten, egunero zerbait ikasten saiatzen. Izan ere, azken finean, pertsonak gara guztiok. Ideologia, ildo eta pentsakeren gainetik, elkar laguntzeko gaude.

Herritarrei ahotsa emateko helburuz lan egiten dugunok ere horrela jokatu izan duzu, esaterako, TXINTXARRI aldizkariarekin.

Asko lagundu zaituztedala esaten duzue, bai, eta zuek niri? Askotan! Beharbada bidea ireki dut urte gehiagotan lan egin dudalako: saiatu naiz tokiko berriemaileen balioa aldarrikatzen. TXINTXARRI-ko kideak, nirekin bulegoan aritu diren langileak... Denok izan zarete lankideak. Uste dut askoz atseginagoa dela dena talde lanean arituz gero, lehiaz gabe.

Elektronika ikasketak egin zenituen. Nolatan hasi zinen berriemaile lanak egiten?

Kasualitatez. Kirolari esker hasi nintzela esango nuke. Elektronika ikasi, eta Michelin fabrika hasi nintzen lanean. Garai horretan futboleko jokatzeko nuen, kategoria altuetan. Tolosak fitxatu ninduen, eta bertara joan behar nuen ez entrenatzera, ezin nituen eskatzen zizkiguten orduak sartu, eta erabaki zuten ezin nuela han jarraitu. Nork daki, agian mesede bat egin zidaten. 1977a zen.

Horren ostean, futboleko fokua jarri eta Alacant-era (Herrialde Katalanak) joan nintzen aurrena, Cartagenara (Murtzia) gero... Esperientzia horien ostean, etxera itzuli nintzen, Texas Lasartearra taldera. Txukun ari bazen ere, babesleek laguntza emateari utzi, eta gehiago ez jokatzeko erabaki nuen. Hala ere, kirola egiten jarraitu nuen, bizikletarekin. Orduan, *La voz de Euskadi* hedabidetik jarri ziren nirekin harremanetan: 'Aizu, kirolei buruz idazten ongi moldatuko zara zu, ziur'. Urte eta erdi idatzi nuen han, pezetarik kobratu gabe.



Omenaldi bat egin zioten berriemaileari 2013an, hasi zenetik 30 urte bete zirenean. Bere alboan, Jesus Mari Egizabal. TXINTXARRI

Egun batean, nire lagun min Imanol Lizardik esan zidan *El Diario Vasco*-ren Lasarte-Oriako kronika nik hartu behar nuela, behintzat ordaindu egiten zutelako. Bertako kazetariak lana utzi behar zuen eta *Egin* egunkariak ere bai, baina lehenengoa aukeratu nuen, pagatu egiten zutelako. 1983ko abenduan hasi nintzen. Garai horretan, sei bat hilabete edo urtebetez aritzen ziren lanean kronista gehienak.

Gogoan duzu aurreneko kronika? Inuzente egunean argitaratu nuen, abenduaren 28an. *Diplodocus* dinosauro baten hezurak ahateen lakuan azaldu zirela idatzi nuen, garai horretan institutuaren parean zegoen. Aurreneko kronika inozentada bat izan zen! *Katxondeo* pixka batekin hasi nintzen (barreak).

"HERRITARREN BOZGORAILU IZAN NAIZ; AHALIK ETA GEHIENEI AHOTSA EMAN DIET"

Aipatu duzunez, tokiko kazetari eta berriemaileek ez zuten luzaroan lan hori egiten. Hasi zinenean zuk ere hori zenuen buruan?

Ez, ez dut uste. Azken finean, bizimodua ateratzeko era bat zen. Hori bai, egia da oso gaizki ordaintzen zigitela: bi afari, kotxearen gasolina eta gutxi gehiago ordaintzeko iristen zitzagun. Urteak aurrera joan ahala alor gehiago lantzen hasi nintzen, Publibrock publizitate agentzia ireki nuen, gero eta eragile, komertzio eta pertsona gehiagorekin harremanetan... Berriemaileak bakarrik ez, saltzaileak izan naiz, argitaratzen nituen albisteak finantzatzearaino: gero eta jende gehiagori ahotsa emanez gero, orduan eta irakurle gehiagorengana iritsi zaitezke, egunkari eta iragarki modulu gehiago saldu... Denetik egin dut, guztia bidean ikasita: artikulua idatzi, publizitatea saldu, maketatu, argazkiak atera, eta abar. Autodidakta izan naiz.

Lehen esan dudana bezala, pozik nago, nire barruak esaten zidana aurrera eraman dudalako: herritarren bozgorailua izan

naiz, ahalik eta gehienei ahotsa eman diet, hori izan da nire estiloa. Satisfazio ikaragarria eman izan dit Lasarte-Oriako kronikaren orria hartu eta bederatzi albiste ikusteak. Orain, beste aire bat eman nahi diote eskualdeen sailari, erreportaje eta elkarrizketek hartuko dute pisua. Nire ustez, zertxobait herren gera daiteke.

Kronista izateari utzi diozunetik, herritarren mezuak jaso dituzu?

Bai, jaso ditut, espero nituenak eta ez nituenak. Beti sentitu izan naiz baloratua. Uste dut ez dudala horren gaizki egin, herritarrek eskerrak eman izan dizkidatelako; estimatu dute nire lana. Horren adibideetako bat izan daiteke 2013ko urrian egin zidaten omenaldia, hasi nintzenetik 30 urte betetzean. Lasai bukatu dut, uneoro egin

"BETI IZAN DUGU HERRI IZAERA, 1986RA ARTE UDALERRI GISA ERATU EZ BAGINEN ERE"

behar nuena egin izanaren sentipenarekin.

Ahalik eta gehienei ahotsa emateko, ahalik eta toki gehienetara joan zara. Ia edonora, herri honetan.

Bai, egia da. Beste herri batzuetan aritu diren lankideek esan izan didate: 'Toki guztietara joaten zara'. Niri hala lan egitea gustatu izan zait beti, egunean eguneko argazkiak egitea. Lasarte-Oria udalerrri independentea denetik, inor baino pleno gehiagotara joan naiz, adibidez; beti berandu, baina bertaratu naiz.

Erdi txantxetan, erdi serio, udalbatzarrek ez ziren hasten Txema iritsi arte. Entzun izan dut esaldi hori.

(Barreak). Noizbait pasa izan da hori, bai. Bilkura baten aurretik beste ekitaldi baten berri ematen ari ginen, eta udalbatzarra hastear zegoen. Alkatea bertan zegoen, eta bukatu aurretik joan zen aretora, saioari ekiteko. Handik gutxira azaldu ginen kazetariak, eta itxaroten ari ziren! Barre egiten zuten zinegotziek, 'Txema iritsi arte ez gara hasiko', brometan.

Anekdotaren bat edo beste kontatu duzu honezkero. Liburu bat idazteko adina izango dituzu...

(Pentsakor geratu da). Bai, asko... Gertaera gogorak ere bai, Miguel Angel Blanco edo Froilan Elespe erail zituztenekoak, adibidez. Edo Hipodromo etorbideko zubi berria eraikitzen ari zireneko; itota hil zen Gurutze Gorria-ko boluntario bat. Beti gorroto izan dut horrelako gertakariei buruzko albisteak idatzi beharra: erailketak, suizidioak, istripuak... Beti.

Une latzak bai, eta zirrargarriak ere bai. 1986ko otsailaren 15ekoa, Lasarte-Oria udalerrri independente gisa eratu zutenekoa, adibidez? Laster izango dira 37 urte.

Bai, dudarik gabe. Izugarria izan zen lasarteoriatarrontzat: beti izan dugu herri izaera, ordura arte udalerrri gisa eratu ez baginen ere. Gogoratzen dut Ama Brigitarren komentuan egin zuten udalbatzarra, han nenbilen ni, erdian, horri buruz informatzen... Zaila izan zen kontzentratzea, sentimendu asko nituelako barruan.

Lasarte-Oriaren bilakaeraren lekuko eta idazle izan zara ia 40 urtez.

Udalerrri moderno bat sortu dute, baina uste dut esentzia galdu egin dela. Dorre etxean jaioa naiz ni, Plazaolako bidea pasatzen zen gure etxe gainetik,

parean errementeria zegoen... Lasarte-Oriako sarrera zen hori niretzat, alde zaharraren ataria. Hori guztia desagertu egin dela ikustea, ez dakit ba. Iruditzen zait herriaren historiaren elementu ikonikoak mantendu egin behar direla. Ezin dugu ahaztu gure aurretik beste belaunaldi batzuk bizi izan zirela hemen.

Lasarte-Oria asko aldatu den bezala, zure lan egiteko modua ere bai?

Erabat. *Informadores de bolígrafo* ginen gu hasieran: koadernoak, bolígrafoa eta kamera hartu, eta albistearen bila. Artikuluak idazmakinarekin idazten genituen, Olivetti markako bat neukan nik. Gero, idatzitakoaren bi kopia egin, horietako bat gutunazal batean sartu eta Maite liburu dendara edo Ilargi tabernara eramaten nuen, *El Diario Vasco*-koek jaso zezaten, 15:00ak baino lehen. Bestalde, argazkiak kamera analogikoekin ateratzen nituen. Karreteak etxean bertan errebelatzen nituen, komunean, Ilford markako materialarekin: negatiboak atera, lehorgailuarekin hezetasuna kendu... Echarri argazki dendakoek laguntzen zidaten gauza batzuekin. Garai horretako irudiak ikusten ditudanean, harrituta geratzen naiz ateratzen zenarekin!

Arreta deitu dit beti egin izan dudana lanaren eta denbora librearen arteko proportzioak. Begira zenbat gauza kontatu dizkizudan; ba, hori guztia egin eta gero, aisialdirako tarreak izaten nituen. Modernizazioarena eta digitalizazioarena engainu hutsa izan da: esan ziguten errazagoa izango zela dena eta lehenago amaituko genuela, baina ez da horrela izan. Gero eta denbora gutxiago eta esijentzia gehiago.

Gure herria aktiboa dela uste duzu?

Juan Manjarres eta Maria Cortesek hartu dute nire lekukoa, eta esaten didate mugimendu izugarria dagoela Lasarte-Orian. Herri gaztea da, baina oso mugitua, egunero dugu zerbait! Prentsaurrekoak, antzerki emanaldiak, zinema, kirol partida eta lehiaketak, ospakizunak... Azpimarratzekoa da herritarrek egiten duten lana, bakarka zein taldeka. Izugarria da.

Herri mugitua bai, baina egia da garaiak eta garaiak izaten dituela... Batzuetan, komeriak den-dena egunkarian sartzeko, eta beste batzuetan, larri, orri bat betetzeko.

"LAN EGITEKO MODUA MODERNIZATZEARENA ENGAINU HUTSA IZAN DA; DENBORA LIBRE GUTXIAGO IZAN DUT"

Bai... Ongi legoke jarduerak zertxobait gehiago banatuko balituzte urtean zehar. Gertatu izan zait asteburu batzuetan goizeko bederatzietan etxetik atera eta goizaldera arte ez bueltatzea, horrenbeste gauzaren berri emateagatik kirol partida batzuetara joan ezin izatea adibidez... Eromena. Baina gero, abuztuan batez ere, harrien azpian begiratu behar izan dut askotan, gairen bat kronikara ekartzeko. Eskerrak zaldi lasterketei, behin baino gehiagotan libratu naute. **Txikitatik gustatu izan zaizkizu zaldi lasterketak, ezta?**

Nire pasioetako bat da, dudarik gabe. Askotan esan dut diru nahikoa izango banu zalditegi bat erosiko nukeela, baina... Txikitikitatik hazi naiz giro horretan, Hipodromoaren bueltan, hori arnastu dut, bere garaian herriko golf zelaiaren bueltan ibili zirenen antzera. Klase altuko jendea etortzen zen lasterketak ikustera. Ahal genuen guztian egiten genuen lan guk txanponen bat patrikan sartzeko, eta gero, barrura sartzen ginen sarrerarik

"ASKOTAN ESAN DUT DIRU NAHIKOA IZANGO BANU ZALDITEGI BAT EROSIKO NUKEELA, BAINA..."

ordaindu gabe, probak bukatzen zirenean harmailetara joan eta oso tolestuta ez zeuden aldizkariak hartzen genituen etxera eramateko... Izugarria zen hori guztia haur ginenontzat.

Badago jendea apustuengatik joaten dena Hipodromora. Niri ere gustatzen zait noizean behin baten bat egitea, baina aukerarik ez balego ere berdin-berdin joango nintzateke. Asko atsegin dut zaldiak lasterka ikustea. Begira argazki asko atera ditudala, baina uste dut irudi perfektua ez dudala lortu oraindik. Hori egiten dudanean, dena utziko dut (barreak). Helmugara iristen direneko unea harrapatzea ez da erraza. Egia da horretarako material berezia behar dela.

Hipodromoan argazki perfektua ateratzearena izan daiteke erronka bat etorkizunerako, baina ez bakarra. Esan duzun bezala, arxibo historikoa lantzea ere bai. Irakurleek irudika dezaten, zer da zehazki bulegoko beheko pisuan gordetzen ari zarena? Hasierako urteetako kronikak liburuki batzuetan jasota ditut eta apaletan gordeta. Beste karpeta

handi bat ere badut, argazki analogiko eta negatibo mordo batekin. Gaika sailkatu, eskaneatu, digitalizatu eta artxibatu egin behar ditut, lan asko izango dut hor. Bestalde, 1990etik aurrerako orriak PDF formatuan eskura daitezke, sarean. Eskerrak eman nahi dizkiot Javier Zataraini, asko lagundu didalako alor hori lantzen, programa informatikoekin.

Horrez guztiaz gain, Plazaolako trenbideari buruzko historia daukat, nire arbasoetako batzuk trenetan lanean ibili zirelako; Nazioarteko Krosarena ere bai, 1956tik, sorreratik, Ken Norris atletak irabazi zuenetik; Michelin lantegiarena ere eman didate... Zerbait egin nahiko nuke horrekin.

Hala ere, beste ezeren aurretik, daukadan guztia aztertu behar dut, zehazki zer den jakin ahal izateko. Denbora gehiago dut horretarako orain; lan egin izan dudana bitartean, batere ez. Ahal izan dudana moduan gorde dut, eta horren ondorioz, pasa izan zait argazkiren bat edo beste aurkitu izana. Pena izugarria ematen dit irudi bat ezin topatzeak.

Zein argazki aurkitu ezinak ematen dizu horrenbesteko pena?

Jon Tecedor herritarrek oparitu zidan bat, sinadura eta guzti. Halterofilia egiten zuen, oso-oso ona zen, Sidney-ko (Australia) Joko Olinpikoetan parte hartu

zuen 2000. urtean. Pertsona bikaina zen, bihotz handikoa, atseгина, beti laguntzeko prest zegoena... Zoritzarrez, ezkondu eta hilabetera hil zen, trafikoko istripu batean, 2008an. Begira eta begira ibili naiz, baina irudi hori ez dut aurkitzen.

Harreman berezia duzu Lasarte-Oriako beste kirolari askorekin. Esate baterako, Maialen Chourraut piraguistarekin.

Txikia zenean ezagutu nuen, piraguarekin hasiberritan. Aita etortzen zen bulegora, artikuluren bat-edo idatzi behar nuela alabari buruz. Oso handia da Maialen. Lehen domina olinpikoa irabazi zuenean, Londresen (Erresuma Batua), 2012an, nori deituko lehenengo, eta niri! Esan nion: 'Jo Maialen, izango duzu beste norbait niri baino lehenago deitzeko, ezta?'. Eta berak, ezetz: 'Txema, zutaz gogoratu naiz, oraindik inor ez nintzenean zuk lagundu ninduzulako beste inork baino lehenago'. Atzo izan balitz bezala gogoratzen ditut bere hitzak.

Azken galdera: urte askotan elkarrizketatzaile izan dena nola sentitu da elkarrizketatua izatean?

Ondo, gustura, pertsona garrantzitsu bat izango banintz bezala (barreak). Beti gustatu izan zaizkit galderak egin eta zehatz erantzuten duten pertsonak, berehala harira etortzen direnak. Ni, zentzu horretan, zailagoa naiz, asko hitz egiten dudalako, gauza pila bat kontatzen ditudalako. Lanbide honen zeregin nekagarrienetako bat elkarrizketak transkribatzea iruditu izan zait beti.

Solasaldia ordu eta erdikoa izan da. Harrituta begiratu dio grabagailuaren pantailari kazetariak, azkar batean pasa direlako 90 minutu horiek. Bat egin du Txema Vallesen hausnarketarekin: badaude elkarrizketa bat ordenagailura pasatzea baino gauza atseginagoak ofizio honetan. Zeregin hori aurrera eramateko indarrak hartze aldera, elkarrizketatuaren gonbidapena onartu eta Ilargi tabernara joan dira biak. Futbol porraren orria hartu eta asteburuko emaitzen iragarpena egin du: Real Madrid 2-2 Reala; Celta 1-1 Athletic; eta Osasuna-Athletico Madrid, berdinketa, 'X' bat kinielan. Asmatzen badu, zalditegi bat erostearen ametsa betetzetik gertuxeago egongo da.



Txema Valles, arxiboko argazki batean, 2003ko abenduan. TXINTXARRI

Herriko futbol taldeak, igoera eta kopa fasean

Futbol denboraldia erdialdera iritsi da eta maila ugaritan fase aldaketa dute orain. Ligako lehen zatia amaituta, maiatzera arte igoera, txapeldunen fasea edo kopa lehiatuko dituzte Texas Lasartearra zein Ostadar SKTko jokalariek

Txintxarri

Futbolean, Gipuzkoan, liga erregularrak amaitu dira hainbat mailatan. Erregional, Jubenil zein Kadete 1. mailako taldeek fase aldaketa izango dute urtarrileko azken asteburuan. Multzoen ligaxka gainditu eta igoera eta kopa txapelketak hasiko dituzte hilaren 28an eta 29an.

Erregionalen eta kadeteen kasuan, bai Ostadar baita Texas Lasartearrak ere kopako lehiari murgilduko dira.

Jubeniletan, Ostadar B taldeak igoerako bidea jarraituko du. Ostadar Ck eta Texas Lasartearrak, aldiz, kopa jokatu dute.

Bestalde, bada kopa jokatzeko ari denik ere, Ohorezko Infantil maila. Lasarte-Oriako talde urdin-beltzeko ordezkariak Igeltegi izan zuen aurrez aurre lehen jardunaldian. Eta gutxigatik ihes egin zien garaipenak: 1-2 amaitu zen partida.



Ostadarreko jokalaria, baloia kontrolatu nahian. TXINTXARRI

Otsailaren 5ean amaituko dute lehen fasea infantil mailetakoz gatzetxoek.

Bi jardunaldi

Jokatu berri duten jardunaldian, txanponaren bi aldeak pairatu zituzten herriko taldeek. Infantil 1. mailako derbia izan zen, esate baterako, Michelin kirol gunean. Texas Lasartearrako

jokalaria 7-0 gailendu ziren Ostadar Cko jokalariei. Ostadarreko Bk ere ez zuen neurketa eroso izan. Ligan bigarren doan Intxurre zuen aurkari eta 0-14 galdu zuen.

Oraindik bi jardunaldi jokatu behar dituzten arren, multzoetako sailkapena aztertzen, jakin daiteke zein taldek jokatu duen



Real Sociedad taldeko jokalariai —Iraia Iparragirre, makurtuta ezkerretik lehen— eta talde teknikoa, txapeldunordearen sariarekin. REAL SOCIEDAD

Realak ezin Superkopa altxa

Hilaren 17tik 22ra Superkopa txapelketa jokatu dute Extremadurako hiriburuan, Meridan. Lau taldek parte hartu dute bertan eta horietako bat Iraia Iparragirre kide duen Real Sociedad izan da.

Finalerdian, Natalia Arroyok zuzentzen duen taldeak Sporting de Huelva 1-0 (Alejandra Bernaberen gola) garaitu zuen eta finalean, hilaren 22an, Bartzelona izan zuen aurkari. Talde txuri-urdinak ederki egin zion aurre aurkariari. Alabaina, kataluniarrek ongi baliatu zituzten erasoak sortutako aukerak eta 0-3 irabazi zuten.

Nahiz eta txapeldunorde izan, Realeko kideak pozik daude txapelketan egindako lanarekin. Finalean, gainera, jokalaria hasieratik bukaerara lehiatu eta dena eman zuten. Orain, ligako hurrengo jardunaldiei begira egingo dute lan.

txapeldunen fasea eta zeinek kopa. Bigarren postuan da Texas Lasartearra eta dagoeneko txapeldunen faserako sailkatu da. Ostadarreko bi taldeak, aldiz, euren multzoetako azken postuetan dira eta kopa jokatu beharko dute.

Infantil F8ko Ostadarreko taldeak ere kopa lehiatuko du. Sailkapeneko erdialdean den arren, hurrengo bi asteetako puntuekin ez da lehen hiru postuetara iritsiko. Hilaren 21ean, gainera, Arrupe Chaminade Bren aurka 4-1 galdu zuen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Mariño CD Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.
GORONGOEN MAILA
Oiartzun KE B - Ostadar SKT Igandea. 17:15. Karla Lekuona, Oiartzunen.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Asoleus CF Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.
Intxurre KKE - Texas Lasartearra CF Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.
OHOREZKO JUBENIL MAILA
Ostadar SKT - Internacional CD Igandea. 15:30. Michelin kirol gunean.
JUBENIL 1. MAILA, IGOERA
Mondragon CF C - Ostadar SKT B Larunbata. 18:30. Mojategi, Arrasaten.
JUBENIL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT C - Mondragon CF B Igandea. 13:35. Michelin kirol gunean.
Hernani CD C - Texas Lasartearra CF Igandea. 18:15. Zubipe, Hernanin.
OHOREZKO KADETE MAILA
Hondarribia FE - Ostadar SKT Larunbata. 12:45. Ondartza, Hondarribian.
KADETE 1. MAILA, KOPA
Texas Lasartearra CF - Kostkas KE E Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT C - Aizkorri FT C Larunbata. 14:30. Michelin kirol gunean.
Hondarribia FE - Ostadar SKT B Igandea. 12:30. Ondartza, Hondarribian.
OHOREZKO INFANTIL MAILA, KOPA
Aloña Mendi KE - Ostadar SKT Larunbata. 13:30. Azkoagain, Oñatin.
INFANTIL TXIKI, 2. FASEA
Ostadar SKT - Igeltegi de Donostia CF Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
INFANTIL 1. MAILA
Ostadar SKT A - Tolosa CF B Igandea. 10:40. Michelin kirol gunean.
Danena KE - Texas Lasartearra CF Igandea. 10:00. Elbarrena, Zizurkilan.
Tolosa CF A - Ostadar SKT B Larunbata. 10:45. Usabal, Tolosan.
ARETO-FUTBOLA
1. MAILA
Ingou Coinbroker Aloña - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones Larunbata. 18:00. Zubikoa kirol., Oñatin.
2. MAILA
Eguzki ISU Leihok - Laskorain KE Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
GAZTEEN MAILA
Lauburu KE Ibarra - Eguzki B. Ayesa Larunbata. 12:45. Belabietza kirol., Ibarra.
INFANTIL MAILA
Antiguoko C.D. Goyeneche - Eguzki AF Larunbata. 13:15. La Asuncion ik., Donostia.

SASKIBALOIA
SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - Yesilan Kurkubi Lezo SKT Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR PARTAIDETZA
Ostadar SKT A - Kurkubi Lezo SKT Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
BKL Loinatz - Ostadar SKT B Larunbata. 12:30. Antzizar kirol., Beasainen.
KADETE ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Innova H.K. ISB Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
SaskiAxular Igeldo - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostia.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
Easo Basket Irulea - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Bidebieta kirol., Donostia.
INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA
Goierri Goierribus - Ostadar SKT Urdina Igandea. 09:15. Aldiri kirol., Urretxun.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Ostadar SKT - Uda Jatorkide Senior Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
EUSKAL LIGA, 2. SENIOR
Ostadar SKT - Bera Bera Igartzia Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

JUBENILA
Ostadar SKT - Hernani KE 2 Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETEA
Lizardi - Ostadar SKT A Larunbata. 11:00. Lizardi BHI, Zarautzen.
INFANTILA
Ostadar SKT - Aldapeta Maria Berdeak Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
PILOTA
TRINKETA BANAKA, JUBENILAK
Behar Zana (Arruti) - Intza (Olazabal) Larunbata. 10:30. (1. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
EPL (Lizarazu) - Intza (Elosegui) Larunbata. 10:30. (3. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
UDABERRI TX., JUBENILAK 1. MAILA
Azkoitia 1 - Intza Ostirala. 19:00. (2. partida) Gurea, Azkoitia.
ERRENDIMENDUA, ALEBINAK 1. MAILA
LAPKE 1 - Intza Ostirala. 17:15. (3. partida) Joxe Migek Barandiaran, Lazkao.
ERRUGBIA
18 URTEZ AZPIKOA
Arratiko Zekorrak RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 11:30. Urbieta kir., Gernika, Bizkaian.

16 URTEZ AZPIKOA
Arratiko Zekorrak RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 10:00. Urbieta kir., Gernika, Bizkaian.
IGERIKETA
ALEBINEN TEKNIKAKAZIO SARIA
Buruntzaldea IKTKo alebinak Teknikakazio Saria lehiatuko dute. Igandea. 10:30 eta 16:30. Azpeitiako kiroldegian.
LASTERKETA
IDIAZABALGO HERRI KROSA
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik 42. Idiazabalgo herri krosa lehiatuko dute. Igandea. 12:00. Idiazabalen.
XAKEA
3. MAILA
KBI Zumaiako C - Taula Xake Kluba Larunbata. 16:00. Zumaiako.
BTT
IRISASI BTT
Lasarte-Oriako BTT zaletuek XI. Irisasi BTT Hotzak akabatzen proban parte hartuko dute. Igandea. 09:00. Usurbilen.

Furundarena, nagusi luzera jauziko probetan

Ostadar Atletismo saileko zein beste taldeetako herritarrek Euskadiko txapelketa lehiatu dute. Guztira hiru domina jantzi dituzte lasarteoriarrek: Ostadarreko Naroa Furundarenak bi urrezko eta Real Sociadako Yeray Veronizek zilarrezkoa

Txintxarri

Naroa Furundarena luzera jauziko zein jauzi hirukoitzeko Euskadiko txapeldun da. Hilaren 21ean eta 22an, Donostiako Antonio Elortza belodromoan jokatu dute lehiaketa. Furundarenaz gain, Real Sociedad taldeko Yeray Veronizek ere zilarrezkoa eskuratu zuen 60 m. lasterketan. Ostadarreko Oinatz Almagro eta Aiala Ramos kideak ere finaletan izan ziren.

Furundarenak luzera jauziko proba lehiatu zuen lehen jardunaldian. Hasieratik probako buru jarri zen 5,46 metroko jauziarekin. Nahiz eta bigarrenen baleko ez zen jauzi bat egin, ongi eutsi zion postuari (5,57; 5,88 eta 5,89) eta finalari amaiera emateko 5,9 metroko jauzia egin zuen.

Hurrengo egunean ere, jauzi hirukoitzeko lehiari antzeko egoera bizi izan zuen. Lehen saiakeran domina eta titutlua emango zion jauzia lortu zuen herritarrek, 12,57 metro. Finaleko gainerako zazpi



Furundarena, luzera jauziko urrezko dominarekin. OSTADAR ATLETISMOA

lehiakidek ez zuten marka hori gainditzerik izan. Guztiak 12 metrotik behera egin zuten jauzi. Horien artean taldekide bat ere izan zuen Furundarenak, Aiala Ramos gaztea. Ramosek zortzigarren postuan amaitu zuen lehiaketa, 9,99 metroko markarekin.

June Garciak ere parte hartu zuen proba horretan. Gazteak ez zuen baleko jauzirik egiterik izan, ordea.

Proba horretako gizonetako mailan ere herritarrik izan zen. Oinatz Almagro finalerako sailkatu eta Ramosen antzera zortzigarren postua eskuratu zuen 12,07 metroko jauzia eginez.

Herritarren hirugarren domina abiadura proban etorri zen. Real Sociadako Yeray Veroniz 60 metroko txapeldunorde izan zen. Bere sailkapen proban garaile (6,95) izan arren, finalean ezin izan zuen Iker Martos barakaldarra garaitu.

Abiadura proban ere Ostadarreko Alex Alkain (7,26), Unax Riezu (7,55), Iraia Alkorta (8,26) eta Maider Abete (8,30) eta Atletico San Sebastian taldeko kide Nerea Eugi herritarrek (8,02) parte hartu zuten. Alabaina ez zuten finaletan sailkatzerik izan.

Ostadar Atletismo saileko arduradunak pozik daude Furundarenak jauzietako proban egindako lanagatik, baita 18 urtez azpiko bi atleta finaletarako sailkatu direlako ere.

Buruntzaldea IKTko gaztetxoek erronkei aurre egin diete

Benjamin B mailako igerilariak Eskolarteko Gipuzkoako txapelketarako sailkapena eskuratu dute

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko txikienean KZL Liga/Testaren bigarren jardunaldia lehiatu zuten hilaren 21ean, Tolosan. Igeriketa taldeko 11 haur izan ziren parte hartzen. Erronkei aurre egiteko gai direla eta euren ikasketa prozesua (estiloak eta arautegia) aurrera doala erakutsi zuten.

2014 eta 2015 urteko A mailako benjaminen bizkar estiloko 50 m. edo 100 m. proba egin behar zuten saioan. Gauzak horrela, Irai Jauregik eta Urko Azpiazuk proba motzean egin zuten igeri eta Axel Fuertesek, aldiz, 100 metrokoan.

Buruntzaldea IKTko arduradunen hitzetan, "denak primeran aritu ziren". Horrez gain, estilo libreko 6x25 m. errelebo mistoan ere lehiatu ziren Buruntzaldea IKTko kide horiek Igartza taldeko hiru neskekin batera.

Maila ona

Zaharragoek – 2012 urteko neska-mutilak eta 2011 urteko mutilek – banakako bi probetan egin zuten igeri: 50 m. bular eta bizkar estiloko 100 m. edo 200 m. Taldean, berriz, estilo libreko 4 x 50 m. erreleboa izan zuten.

Era horretara, taldeko guztiek lehen proban parte hartu zuten. Aizpea Barcina, Aiala Erro eta Amy Y. Sánchez kideak, aldiz, estiloko 100 m. proban aritu ziren. Eta June Apeztegia, Oier Jauregi, Aitor Ormazabal, Ander Martinez eta Liher Albizuk 200 metrokoari egin zioten aurre.

Prestatzaileek azaldukoaren arabera, "kategoria honetako gure haurrak ere oso txukun aritu ziren eta maila ona hartzen ari direla erakutsi zuten". Hala ere, hobetzeko gauzak ere badaudela azpimarratzen dute, bizkar estiloko biraketa.

Era berean, proba honen ostean, maiatzeko Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketarako sailkapena lortu duten igerilariak daudela jakitera eman dute: Jauregi, Ormazabal, Albizu eta Martinez.

Euskal Liga 2. mailako taldearen akatsak, neurketaren gakoa

Euskal Ligako 2. mailako bigarren itzulia hasi da. Ekialdek 0-3 garaitu du talde urdin-beltza

Txintxarri

Euskal Ligako 2. mailako Ostadar Boleibol taldeak bigarren itzuliko lehen neurketa jokatu zuen Maialen Chourraut kiroldegian. Aurrez aurre Ekialde talde gasteiztarra izan zen.

Asier Acuriolaren taldeak 3-1 irabazi zuen Gasteizen, eta neurketa jokatu arte, sailkapenean aurretik zen Lasarte-Oriako taldea. Aurreikuspenen arabera emaitza etxekoan aldeko izan zitekeen, neurketa bestelakoa izan zen, ordea.

Lehen zatian, Ostadarrek akats ugari egin zituen eta horren ondorioz, gasteiztarrek nagusi izan ziren (10-25).

Bigarrenen ere, neurketan sartzeko arazoak izan zituzten etxeko jokalariek eta saiatu arren, Ostadarrek ez zuen jokaldiak aldeko puntuan amaitzerik izan. Ekialde, ordea, sendo mantendu zen, akatsik ez zuen egin eta seta eraman zuen (18-25).

Azken zatian, Acuriolaren jokalariek hanka-sartzeak murriztu eta tantoak ederki borrokatu zituen. Tamalez, ezin izan zuen seta poltsikoratu (21-



Ostadarreko jokariak sarean, blokeoa egiten. TXINTXARRI

15) eta laugarren zatia jokatzeraz behartu.

Acuriolak azaldu duenez, "Azken aldian dinamika negatiboa dugu. Jokalarien konfiantza eragina izaten ari dela uste dut eta hori azken seta ez irabaztearen arrazoi izan daiteke".

Jubenilak ederki

Gainerako taldeei dagokionez, kadete B eta infantilek atsedena izan zuten. Euskal Ligako taldeak Sestaon 3-0 galdu zuen eta kadetea A taldeak ere zorte bera izan zuen Toloboleiren aurka (1-3). Jubenil mailan, aldiz, bestelakoa izan zen emaitza. Ostadarrek Toloboleiko gazteak 1-3 garaitu zituen.

Taula Xake Klubak garaipenarekin hasi du Liga

Bidasoa Xake E taldearen aurkako laukoarekin neurtu ditu indarrak eta 3-1 gailendu da herriko taldea

Txintxarri

Taula Xake Klubak Ligari hasiera ederra eman dio; Bidasoa Xake E taldea 3-1 irabazi du eta sailkapeneko seigarren postuan da, hiru puntu lortuta.

Txapelketako bigarren jardunaldian, Irungo taldea izan zen lehen bisitaria Lasarte-Orian; gaztetasuna eta esperientzia batzen dituen laukoa ekarri zuen lehiara.

Pablo Conde kapitainak, Marco Prieto, Jon Pereira eta Telmo Conde gazteek etxeko Jose Ignacio Echeverria, Juan Cruz Figueras,

Alejandro Sanchez eta Juan Luis Varela izan zituzten aurrez aurre.

Erlojuak martxan jarri eta xakeko piezak taula gainean mugitzen hasi ziren. Jokaldiak ongi pentsatzeko astia hartzen zuten batzuetan aurkariak, bestea kinka larrian jartzeko asmoz.

Xake-mate edo aurkariaren amore ematekin amaitu ziren partidak. Sanchezek izan ezik, herriko jokalariek Bidasoakoak gainditu zituzten.

Hurrengo jardunaldian, Zumaiara egingo du bidaia Taula Xake Klubak.

Eguzkiko lehen taldeak ongi hasi du 2023 urtea

Gipuzkoako 1. mailako jardunaldian, Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak Euskaldunaren aurkako partida 7-6 irabazi du. Neurketa borrokatua izan da azken momentura arte; garaipena eskuetatik ihesi egiteko zorian izan dira etxeokak

Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak 2023 urte hasiera bikaina izan du. Jokatutako hiru partidetatik bi irabazi eta bat berdindu du. Azken garaipena hilaren 20an erdietsi zuen Euskaldunaren aurka. Partida borrokatua izan zen Maialen Chourraut kiroldegiko pistan ikusi ahal izan zena; garaipeneko puntuak galtzeko zorian egon zen Josu Lopezen taldea. Azkenean, 7-6 gailendu zen.

Andoingo taldea nagusi izan zen lehen minutuetan eta bi aukera garbi izan zituen Eguzkiren ate aurrean. Etxeko taldeak ez zuen galtzeko asmotik, ordea. Minutu batzuk behar izan zituen markagailuan aurreratzen. Beñatek lapurtutako baloi batek aurkariaren atean amaitu zuen eta gutxira kórner baten ondorioz Landerrek bigarrena egin zuen.

Euskaldunak ez zuen amore eman eta neurketa berdintzeko ahaleginak egin zituen. Talde hori-beltzak, berriz, aldea handitzeko lanean ziharduen. Atsedenaldirako bost minutu falta zirela, fruitua izan zuten etxekoen ahaleginek. Mikelek zuzendutako kontra bati esker, Eguzkik hirugarrenez zulatu zuen aurkariaren atea.



Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeko kide bat, erasoan. TXINTXARRI

Azken minutuan, berriz, Josu Lopezen jokalariren hutsegite baten ondorioz aurkariak gola egin zuen. Atsedenaldira 3-1 iritsi ziren.

Etxekoek, nekea

Bigarren zatian etxeko taldeak gorabehera dezente izan zituen. Hasieran ederki jokatu ziren Lasarte-Oriako taldeko jokalariek eta Erik eta Igorren golei esker 5-1 jarri zen markagailuan.

Garaipena eskuan zutela zirudien arren, Euskaldunak aldea murritzitu zuen bi jokaldi ezberdinetan; areaz kanpoko jaurtiketa bat eta penalti bat. Aukera gehiago ere izan zituzten,

Eguzki jokalariek bat gutxiagorekin geratu baitzen.

Egoera ikusirik, Euskaldunak atezain jokalaria atera zuen eta horren ondorioz, Josu Lopezen taldeak bitan baloia lapurtu eta 7-3 jarri zen markagailuan. Seigarren gola Mikelek egin zuen eta zazpigarrena, berriz, osatu berri eta denboraldiko lehen minutuak jokatzen zituen Arcok.

Neurketa erabakita zegoela uste arren, Eguzkiko jokalariek neurketan egindako esfortzuaren ondorioak jasan zituzten eta andoaindarrek egoera ongi baliatu zuten partidari gatz apur bat jartzeko. Falta bat eta bi jokaldi nahikoak izan ziren 7-6 jartzeko. Azken 48 segundoetan ere ederki borrokatu zuten berdinketa lortzeko. Alabaina, ez zen denbora nahikoa izan eta etxekoek eraman zuten saria.

Josu Lopez Eguzkiko entrenatzailea pozarren dago taldeak 2023 urte hasierako jardunaldietan egin duen lanarekin. Lortutako puntuek jokalariei animoak eman eta sailkapeneko azken postuak uzteko baliagarri izatea espero du herriko prestatzaileak. Urtarrilari amaiera emateko aurkari gogorra izango du, ordea; hirugarren postuan den Ingou Coinbroker Aloña.

Ongi jokatu arren, Intzako bikoteek ezin garaipena lortu

Trinkete txapelketako bakarkako lehian, aldiz, Intzako jubenilek euren taldekideak izan dituzte aurkari

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko pilotariek ez zuten zortetik izan bikotekako Udaberri zein Errendimendu txapelketetan. Ederki jardun ziren pilotariak, baina ezin izan zituzten aurkariak gainditu.

Michelin kirol guneko pilotalekuan bi txapelketa horietako partida bana ikusteko aukera izan zuten zaleek hilaren 22an. Errendimendu alebin lehen mailako lehia izan zen lehenik. Intzako Liher Fernandezek eta Oier Jauregik Hernani 3 bikotea izan zuen aurkari eta 6-16 gailendu ziren hernaniarrak.

Ostean, Udaberriko Jubenilen Lehen Mailako partidari aurre egin zioten Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilleta gazteek. Oartzunen aurka neurtu zituzten indarrak herritarrek.

Neurketa hasieratik aurkaria jarri zen aurretik. Bi bikoteen arteko aldea ez zen handia. Baina 14-17 iritsi eta astindu ederra eman zioten kanpokoek markagailuari; bost tanto jarraian egin eta partida irabazi zuten.

Etxetik kanpo ere egoera ez zen hobeia izan. Zizurkilan Errendimendu alebin 2. mailako bikoteak – Ekhi Maiz eta Arkaitz Lasa – 16-7 galdu zuten Ziotzaren aurka.

Eta Bergaran jokatu zuen Udaberri txapelketako jardunaldia jubenil 2. mailako bikoteak. Beñat Olazabal eta Pedro Elosegui ederki borrokatu zuten eta azken minutuetara



Jubenil 1. mailako bikotea, Oartzunen aurka lehian. TXINTXARRI

arte neurketa irabazteko aukerak izan zituzten. Tamalez, bergararrek partidari amaiera ematen jakin zuten eta 22-18 irabazi zuten.

Elkarren aurka

Trinketeko bakarkako lehian, aldiz, elkarren aurka jokatu zuten jubenilek. Irurako Ametsa trinketean bildu ziren Olazabal, Diaz de Gereñu, Elosegui eta Urdanpilleta euren norgehiagokei aurre egiteko.

Olazabal eta Diaz de Gereñuren arteko neurketaz gozatu ahal zen lehenik. Norgehiagoka berdindua izan zen, 34-35. Biek ederki jokatu zuten eta azken tantora arte ez zen garailea erabaki: Diaz de Gereñu.

Beste partidari, Elosegui eta Urdanpilleta izan ziren aurkari. Biek joko ona erakutsi arren, Urdanpilleta nagusi izan zen eta lasaitasunez garaipena erdietsi zuen, 19-35.

Errugbi taldeek emaitza onak nahiz txarrak lortu dituzte

16 urtez azpiko mailan Arrasate garaitu dute; Ohorezko B mailan, aldiz, ezin izan dute Arratiko Zekorrek garaitu

Txintxarri

Michelingo kirol gunean jokatzeokak baziren ere, Euskal Ligako Ohorezko B mailako zein 16 urtez azpikoen errugbi taldeek Astin, Zarautzen lehiatu behar izan zuten jardunaldia hilaren

22an. Batean kale eta bestean bale egin zuten Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RTko taldeek.

Gazteek eman zioten hasiera goizari. Euren liga atsedena izan arren, 7. jardunaldian atzeratutako partidari aurre egin zioten.

Aurkaria Arrasate izan zen eta etxeko modura jokatu zuen.

Neurketa borrokatua izan zen. Hamabigarren minutuan markagailuan aurkako jarri zitzairen beltzei, arrasatearrek entsegua egin ostean.

Gesalaga Okelan Zarautzeko gazteek ez zuten amore eman eta erasoan jarraitu zuten. Horri esker, bitan igaro zuten entsegu marra eta bi gauzatze ere lortu zituzten.

Bigarren zatian, berriz, markagailuak ez zuten

mugimendurik izan. Taldeak defentsan sendo egon ziren eta metroak lortzea zaila izan zen. Era horretara, 5-14 irabazi zuten norgehiagoka.

Ohorezko B mailako taldeak ez zuen zorte bera izan. Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorrek RT taldearen aurka neurtu zituen indarrak beltzek eta bizkaitarrak izan ziren nagusi, 19-34.

Bi taldeak gogor hasi ziren lehian. Partida orekatua izango zela zirudien. Aurkaria aurreratu zen markagailuan entsegu eta

zigor ostiko baten gauzatzearen bitartez. Beltzek ongi erantzun zuten entsegu bidez.

Atsedenaldira iritsi baino lehen, berriro ere marra igaro zuten bizkaitarrek eta gauzatzea ere egin zuten.

Bigarren zatiko lehen minutuetan ez zen markagailuan mugimendurik izan. 60. minututik aurrera, berriz, talde bakoitzak bina entsegu zein gauzatze egin zituen. Eta azken minutuan ere bizkaitarrek beltzen azken marra igaro zuten.



Julian Iborra Ibañez lasarteoriatarra, ibilaldi batean. J. IBORRA IBAÑEZ

"Gure buruan dauden mugek baldintzatzen gaituzte"

JULIAN IBORRA IBAÑEZ 'SENDEROS Y RUTAS DE GIPUZKOA' ORRIAREN SORTZAILEA
Nahiz eta %92ko ikusmen murrizketa izan, herritarrak bere zaletasunez gozatzen du: mendia eta eskalada. Mendi ibilbideak proposatzen dituen Facebook orria ere badu

Nerea Eizagirre

Mendizaletasun handia dago Gipuzkoan eta Euskal Herrian orokorrean. Horri lotuta, mendi talde eta bestelako zaletuen orrialde edo blogak aurki ditzakegu Interneten eta sare sozialetan. Horieta bat da *Senderismo y Rutas de Gipuzkoa*. 2019an sortu zuen taldea Julian Iborra Ibañez (Lasarte-Oria, 1974) herritarrak. Iborrak %92ko ikusmen murriztasuna du, baina horrek ez dio bere zaletasunez gozatzea eragozten: mendia eta eskalada. Are gehiago, gida izateko ikasketak hasiko ditu aurki.

Noiz sortu zitzaizun mendirako zaletasuna?

Mendian ibiltzea gustuko nuen, Baina pisu arazoak nituen eta horrek ez zidan gozatzen uzten. Beraz, pisua galtzea erabaki nuen; urte betean 40 bat kilo. Duela hamar bat urte izan zen hori, eta geroztik, nire zaletasun nagusia bilakatu da.

Zaletasun horretatik, 2019an, 'Senderismo y Rutas de Gipuzkoa' taldea sortu zenuen Facebook sare sozialean. Zergatik?

Ibilbideak antolatzen zituen *Senderismo y rutas en Donosti* taldea ezagutu eta kide egin

nintzen. Baina talde hori desegin egin zen eta ondorioz, hogeitak pertsona geratu ginen jarraitzeko gogoekin.

Talde berri bat sortu eta egun 1200 pertsona gaude Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroan. Madrilgo kide bat ere badugu, batzuetan datorrena.

"BATZUEK USTE DUTE MENDIRA JOATEA 'POTE' BATZUK HARTZERA JOATEA BEZALA DELA"

Nola dago antolatuta taldea?

Taldeaz gain, webgune bat eta WhatsAppko hiru multzo ere baditugu.

Bertan, nik antolatzen ditudan irteeren informazioa elkarbanatzen dut. Baina beste kideek ere proposamenak egiten dituzte, Facebooken nahiz WhatsAppen. Eta ibilbideen irudiak ere ikus daitezke.

Zenbat irteera antolatzen dituzue?

Lehen astebururo antolatzen nuen bat, orain hamabost egunero edota hilean bi edo hiru izan daitezke. Iaz, guztira, 50 bat izango ziren. Nik proposatutakoez gain, beste kideenak ere badaude, eta egun berean bizpahiru aurrera eraman ditzakete. Horiek zenbatzea zailagoa da.

Hurrengo hilean, esate baterako, Baztan aldera egingo dugu irteera bat, eta uztaileko Pirinioetara joateko ibilaldi bat antolatzen ari naiz. 50 kilometrotako bidea izango litzateke.

Edonork parte har dezake?

Kide guztiei irekia da, baina ohikoa da talde bera joatea irteera guztietara. Zale berriren bat animatzen da noizbait.

Gainera, guztiak mendi federazioko kide dira, eta gurekin datorren jendeare ere federatzeko eskatzen diogu.

Webgunean atal bat egiten ari naiz oraintxe Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroan egon daitezkeen mendi taldeekin.

Batzuek uste dute mendira joatea *pote* batzuk hartzera joatea bezala dela, baina mendian ibiltzeak bere arriskuak ditu.

COVID-19a dela eta, mendizaletasuna areagotu da?

Baietz, esango nuke. Itxialdi garaian ateratzeko tarte eman zigutenean, jendea mendira joaten zen, baita ni ere. Andatza eta Buruntzara igotzen nintzen.

Pandemia ostean, mendian jende gehiago ikusten da eta taldean ere mugimendu gehiago dago.

Ikusmen murriztasuna duzu. Nola moldatzen zara mendian?

Txikitatik dut ikusmen urritasuna eta betaurrekorik gabe ez dut ezer ikusten. Dudan ikusmen gutxi horrekin moldatzen naiz, baina distantziak antzemateko zailtasunak ditut.

Beraz, mendira taldean noa. Bere garaian mendira bakarrik joatea komenigarria ez dela ikasi nuen. Bakarrik Andatza edo Buruntzara igo naiteke, ongi ezagutzen ditudalako.

Horrez gain, ezin dut gidatu eta beti norbaiten menpe nago mendira joateko.

Eta gida lanak egiteko?

Wikiloc aplikazioan bilatzen ditut ibilbideak eta bidea ongi azaldua ez badute edo argazkirik ez badago, atzera botatzen dut.

Mendian, Wikilocen ibilbideak, GPSa eta mapa eramaten ditut beti gainean. Mapa ikusteko ere komeriak izaten ditut eta lupa bat dut. Horrez gain, ibilbideetan zailtasunak aurkitzen badugu (harriz betetako bidea edo zuloak), nirekin doan jendeak lagundu ohi izan dit.

Horrez gain, eskalada ere egiten duzu.

Eskalada egitera ezagutzen dudan jendearekin joaten naiz. Badakite nola lagundu. Izan ere, nik dudan ikusmen mailarekin ez ditut batzuetan heldulekuak ongi ikusten eta eskuak edo oinak non jarri esan behar didate.

Mendira joateko eragozpenik ez dagoela aldarrikatzen duzu.

Nahi izatea da garrantzitsuena. Gure buruan dauden mugek baldintzatzen gaituzte. Badaude bestelako desgaitasunak dituzten pertsonak mendira joaten laguntzen dieten taldeak ere.

Eta laster pauso bat gehiago ematera ausartuko zara, mendi gida titulua.

Bai. Horrela da. Mendi gida azterketa egin nahi dut, TD1 izenekoa. Aurrerago TD2a ere egiteko asmoa dut. Eskalada, sakanetako ibilaldiak eta garaiera ertaineko mendien gida izateko baliagarria da hori.

Bigarrena eskuratzeko arazo gehiago izan ditzaket nire ikusmen mailarengatik, baina biak izatea gustatuko litzaidake. Garaiera altuetako mendietako titulua, ez dut buruan. Nire mugak ezagutzen ditut.

Etorkizunean pentsatu al duzu garaiera altua duen mendiren batera igotzea?

Oraingoz ez dut asmorik, baina eginez gero kordada erdialdean joango nintzateke. Ikusmen murriztua duten pertsonak edo itsuak direnak eremu horretan joan ohi dira, eta horrek, modu batean, aurrera egiten laguntzen du.

Tituluak atera ostean zein helburu duzu?

Asmoa mendiaz gozatzen jarraitzea da. Egiten ari naizen lana gustuko dut eta daukadan ikusmen murriztasunak ahalbideratzen didan heinean, egiten segiko dut.

KOMIKIA



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 27

ACHA-ORBEA

LARUNBATA, 28

LASA

IGANDEA, 29

LASA

ASTELEHENA, 30

URBISTONDO

ASTEARTEA, 31

GANDARIAS-URIBE

AZTEAZKENA, 1

DE ORUE

OSTEGUNA, 2

DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943 33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84

KIROLDEGIA: 943-37 61 82

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA:

943-37 61 81

GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79

KIUB: 943-36 16 05

UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21

MUNTTERRI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60

DYA: 943-46 46 22

GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53

UDALTZAINAK: 943-36 24 42

ERTZAINTZA: 943-53 88 40

SOS DEIAK: 112

ESKELA

ESKELA

Juan Bereziartua Zabala

(Ttakun Kultur Elkarteko bazkide eta laguntzailea)

-Goian bego-

2023ko urtarriaren 23an hil zen,
88 urte zituela.

Besarkada handi bat familiari

Ttakun Kultur Elkartea

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKAIRUA

Logela bat alokatzen dut emakume batentzat, etxebizitza partekatut batean, Lasarte-Oria erdialdean. Giro lasaia. Harremanetarako zenbakia, 666 31 79 60.

LANA

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erieteetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

SALEROSKETA

SALDU

Su gurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldean. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

ESKELAK JARTZEKO:
646 82 44 66 edo PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS

► Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€

► Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€

► Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren izen-abizenak
eta jaiotze data
txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora
edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 27

USURBIL Hitzaldia
Zaharrak gara eta libre solasaldia antolatu dute Usurbilgo Udala, Emagin, Matia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hizlariak, hauek: Miren Aranguren (Emagin elkarte), Mari Luz Esteban (EHUko irakaslea) eta Ruth Iturbide (NUPeko irakaslea). Potxoenea, 18:00etan.

HERNANI Kontzertua
Anari musikariak kontzertua emango du. Emanaldi akustikoa izango dela iragarri dute, eta bertaratzeko sarrerak erostea ezinbestekoa. Honako helbidean eskura daitezke horiek: www.kultura.hernani.eus. Chillida Leku Museoa, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Zinema
Okendo Zinema Taldeak zineforuma egingo du, *La maternal* filma proiektatuta. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros daitezke. Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 28

HERNANI Topaketa
Buruntzaldeko Ezker Abertzaleak eskualde horretako II. Independentzia Eguna egingo du. Honako egitaraua iragarri du:

11:00etan, *Burujabetzak mugari, independentziara bidean* hitzaldia, Biteri Kultur Etxean.
14:00etan, herri bazkaria (Txotx-a egongo da) eta Mexikortxo, Atsegindegin. Bertaratzeko txartelak erostea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek (tiketa eta kamiseta 15 euro).
18:00etan, manifestazioa abiatuko da Gudarien plazatik, *Bidea igarri, independentziarantz!* lemapean.
20:30ean, Pleura eta Arkada Social musika taldeen kontzertuak Garin herriko tabernan. Ondoren, DJ Atxuak RaZin.
Hernani, 11:00etatik aurrera.

HERNANI Aurkezpena
Bizipoza elkarteak *Mundu berri bat guztiontzat* bildumaren hirugarren CD eta DVDak aurkeztuko ditu.



LASARTE-ORIA Antzerkia. Artedrama eta Axut! konpainiek *Hondamendia* antzezlanaren emanaldia egingo dute. 2020ko otsailean Zaldibarreko zabortegean gertatu zen erauntsia eta hilabete geroago lehertu zen pandemia jorratzen ditu obrak, nagusiki. Ximon Fuchs-ek zuzendu du 85 minutu irauten duen lana, eta Harkaitz Cano idazle lasarteoriatarrek sortu du testua. Sarrerek 6 euro balio dute: kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atarian eros daitezke. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 20:00etan.

Eragile horren kide diren 11 eragile eta elkarteren egunerokoa kontatu dute lan horretan, hamabi abestiren bitartez.
Biteri Kultur Etxea, 11:00etan.

ANDOAIN Ikuskizuna
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen taldeak 35 urte bete dituela eta, jai erraldoia antolatu dute Bastero auditorioan.
Bastero, 16:30ean.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Hondamendia antzezlanaren emanaldia egingo du Artedrama eta Axut! konpainiek. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros daitezke.
Kultur etxea, 20:00etan.

ASTIGARRAGA Kontzertua
Anje Duhalde musikariak musika emanaldia egingo dute. 18 urtez azpikoentzako sarrerek 5 euro balio dute, eta helduentzakoek, 10 euro. Erribera kulturgunea, 20:00etan.

IGANDEA 29

ASTIGARRAGA Zinema
Ama Mu itzuli da filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 3 euro balio dute.
Erribera kulturgunea, 16:30ean.

ANDOAIN Zinema
Inspector Sun y la maldición de la viuda negra filma proiektatuko dute. Bastero, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Kung food filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan zein Kutxabank Sarrerak atarian eros daitezke.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
El peor vecino del mundo filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atarian eros daitezke.
Kultur etxea, 19:30ean.

LARUNBATA 11

LASARTE-ORIA Literatura
Lasarte-Oriako Irakurle Txokoak bertso bazkari literarioa antolatu du. Uxue Alberdik jarriko dizkie gaiak Ane Labaka eta Alaia Martin bertsolariei, eta Iban Urizar musikariak jarriko doinuak. Sarrerek 25 euro (langabetua bazara, 20 euro) balio dute eta Ilargi nahiz Tiburtzio Artizar tabernetan eros ditzakete lasarteoriatarrek.
Xirimiri elkarte, 14:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA	Astelehena 30	(3D), 22:00.	15:50, 18:55, 22:05.
MANUEL LEKUONA	19:30, 22:00.		
'La maternal'	HERNANI	Larunbata 21	'M3GAN'
Ostirala 27	BITERI	16:00 (3D), 17:00	Ostirala 27
22:00.		(3D), 18:00, 19:00,	16:30, 20:10,
'Kung food'	'La emperatriz rebelde'	20:00 (3D), 21:00	22:30.
Igandea 29	Ostirala 27tik	(3D), 22:00.	Larunbata 28
'El peor vecino del mundo'	astelehena 30era		16:30, 20:10,
Igandea 29	22:30.	Igandea 22	22:30.
19:30.	'El pequeño Nicolás'	16:00 (3D), 17:00	Igandea 29
	Ostirala 27 eta	(3D), 18:00, 19:00,	16:30, 20:10,
ANDOAIN	larunbata 28	20:00 (3D), 21:00	22:30.
BASTERO	16:30.	'Babylon'	'The Offering'
'Inspector Sun y la maldición de la viuda negra'	USURBIL	Ostirala 27	Ostirala 27
Igandea 29	URBIL	18:25, 21:05.	15:45, 22:25.
17:00.	'Avatar: el sentido del agua'	Larunbata 28	Larunbata 28
'El peor vecino del mundo'	Ostirala 27	18:25, 21:05.	15:45, 22:25.
Igandea 29	16:00 (3D), 17:00	Igandea 29	Igandea 29
19:30.	(3D), 18:00, 19:00,	18:25, 21:05.	15:45, 22:25.
	20:00 (3D), 21:00	'Devotion'	'A todo tren 2'
		Ostirala 27	Ostirala 27
		15:50, 18:55,	15:45
		22:05.	Larunbata 28
		Larunbata 28	15:45.
		15:50, 18:55,	Igandea 29
		22:05.	15:45.
		Igandea 29	



LABURPENA

'La maternal'
Zuzendaria: Pilar Palomero. **Gidoia:** Pilar Palomero. **Argazkia:** Julian Elizalde. **Ekoizleak:** Inicia Films, BTeam Pictures, RTVE, TV3, Aragon TV, Movistar Plus+. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Iraupena:** 122 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Carla Quilez, Angela Cervantes, Jordan Dumes, Pepe Lorente, Olga Hueso, Ruben Martinez, Gal-la Sabate, Neus Pamies, Claudia Dalmau, Sheila Baños, Claudia Medina, Jamila Bengharda, Karol Ruiz-Tagle.

Bizitza kolpez aldatzen denean

Nerabezaro betean dago Clara, 14 urteko gazte bat: errebeldea eta desafiatzaileria da. Errepide alboan dagoen jatetxe batean bizi da, amarekin batera. Ez zaio eskolara joatea gustatzen, nahiago du piper egin eta bere lagun Efrainekin geratu. Egun batean, esango diote haurdun dagoela, bost hilabeteko, eta orduan La maternal izeneko zentro batera eramango dute.

Adin txikiko beste pertsona batzuk ezagutuko ditu han, egoera berean daudenak. Erditu eta gero, munduari egin beharko diote aurre. Pilar Palomerok zuzendutako filmak kritika oso onak jaso izan ditu zinema aretoetara eramaten hasi zirenetik. Iragan urteko Goya sarietan, esaterako, pelikula onenaren saria irabazteko hautagaietako bat izan zen.

MERKEALDIA

2MÓ 199€

LEHEN ~~229€~~ERREFLEXUEN AURKAKO
BETAURREKO PROGRESIBOAK

R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15

Tel.: 943 37 74 55

LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multiópticas.com

KOMERTZIO TXIKI
HERRI HANDI

LASARTE-ORIA

txintxarri

PUBLIZITATEA JARRI NAHI DUZU?

Hilabetean
behinHilabetean
bitan

ostiralero

- Zure datuak eta irudia erakutsiko ditugu.
- TXINTXARRI astekaria da Lasarte-Oriako erakusleho ikusiena.
- 8.300 ale banatzen ditugu buzoietan eta komertzio guztietan DOAN.
- San Pedro eta Gabonetako berezietan deskontuak.
- Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

ESKATU INFORMAZIOA! TARIFA BEREZIAK GUK ZU ETA ZUK GU LAGUNTZEKO!

Geltoki kalea 4 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943-37 14 48 • 646 82 44 66 • publizitatea@ttakun.eus